

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

5670

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 30ekoa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta argitaratzen baita udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2023ko ekitaldirako deialdia egiten duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko uztailaren 11ko Aginduan aurreikusitako laguntzen emakida.

2023ko uztailaren 21eko EHAAn argitaratu zen (139. zk.) Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko uztailaren 11ko Agindua, udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2023ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 27an bukatu zen, agindu horren 6.1 artikuluan ezarri zenez. Epe horretan, guztira, hamaika eskabide sartu dira (ebazpen honen I. eranskinean daude jasota).

Agindu horren 8.1 artikuluan xedatutakoa dela bide, 2023ko azaroaren 8an, dagokion balorazio-epaimahaiak eratu zen, hartutako eskaerak aztertu eta egiaztatzeko xedez, kontuan hartuta 9. artikuluan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

Agindu horren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 200.000 euro bideratuko dira dirulaguntza hauek emateko. Bestalde, 15. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela dokumentua idazteko laguntza teknikoa kontratatzea dela-eta sortutako gastuen % 100 (BEZik gabe), dokumentu bakoitzerako 23.000 euroko gehieneko muga jarrita (biztanle-kopuruaren araberrako zuzentzailearekin), betiere dagoen aurrekontu-kreditua amaitu arte.

Balorazio-epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, 2023ko azaroaren 29an, 8.3 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordetza honi igorri dio esleipenerako proposamena, non adierazten den zein eskabide diren dirulaguntza jasotzeko proposatzen direnak, barnean hartuta udal onuraduna, diruz lagun daitekeen proiektua, lortutako puntuazioa eta proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

Deialdia egiteko aginduaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta eta balorazio-epaimahaiak egindako proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak ematea, 2023ko ekitaldirako, ebazpen honen II. eranskinean adierazitako udalei (bertan aipatzen da emandako zenbatekoa), dokumentua egin dezaten.

Bigarrena.– III. eranskinean jasotako eskabideak ukatzea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Deialdia egiteko aginduaren 18. artikuluan adierazitako moduan eta epeetan egingo da dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.

2023ko abenduaren 21a, osteguna

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko, aipatutako aginduaren 10. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 30a.

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordea,
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.

I. ERANSKINA

JASOTAKO ESKABIDEAK

Udala	Dokumentuaren izenburua
Artziniega	Trabajos para la inclusión de la perspectiva de Género en el Plan General de Ordenación Urbana de Artziniega.
Durango	Inserción de la perspectiva de género en el PERI-1 Ferrocarril de Durango.
Ibarra	Bizitegi-eremuetako beheko solairuetan kokatutako lokaletan erabilera berriak baimentzeko ordenantzaren berrikusketaren ebaluazioa eta ekarpenak.
Markina-Xemein	Genero-ikuspegia txertatuz Markina-Xemeingo Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana.
Maruri-Jatabe	Plan general de ordenación urbana de Maruri. Integración de la perspectiva de género en el planeamiento municipal y el urbanismo.
Mundaka	Genero-ikuspegia txertatuz Mundakako Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana.
Muruetza	Trabajos para la inclusión de la perspectiva de Género en el Plan General de Ordenación Urbana de Muruetza
Oiartzun	Oiartzungo Elizalde auzoko ELI-6 eremuko Plan Partzialean genero-ikuspegia txertatzea.
Sestao	Realización del diagnóstico urbano con perspectiva de género. Mapa de puntos críticos del Municipio de Sestao.
Soraluze-Placencia de las Armas	Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana
Zumaia	Trabajos para la inclusión de la perspectiva de Género en el Plan General de Ordenación Urbana de Zumaia.

2023ko abenduaren 21a, osteguna

II. ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Udala	Dokumentuaren izenburua	Puntuazioa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)
Artziniega	Trabajos para la inclusión de la perspectiva de Género en el Plan General de Ordenación Urbana de Artziniega.	11,75	8.819,77
Durango	Inserción de la perspectiva de género en el PERI-1 Ferrocarril de Durango.	11,70	14.968,50
Markina-Xemein	Genero-ikuspegia txertatuz Markina-Xemeingo Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana.	12,30	14.600,00
Mundaka	Genero-ikuspegia txertatuz Mundakako Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana.	12,25	8.822,15
Murueta	Trabajos para la inclusión de la perspectiva de Género en el Plan General de Ordenación Urbana de Murueta	11,40	5.423,79
Oiartzun	Oiartzungo Elizalde auzoko ELI-6 eremuko Plan Partzialean genero-ikuspegia txertatzea.	13,30	11.990,31
Sestao	Realización del diagnóstico urbano con perspectiva de género. Mapa de puntos críticos del Municipio de Sestao.	8,30	15.000,00
Soraluze-Placencia de las Armas	Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana	12,00	12.630,40
Zumaia	Trabajos para la inclusión de la perspectiva de Género en el Plan General de Ordenación Urbana de Zumaia.	10,75	8.900,00
	Guztira		101.154,92

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Udala	Ukatzeko arrazoia
Ibarrako Udala	Atzera egitea (2023ko uztailaren 11ko Aginduaren 7. artikulua)
Maruri-Jatabeko Udala	Ez da diruz laguntzeko xedea (2023ko uztailaren 11ko Aginduaren 1. artikulua).